ANTSOAIN
ANSOÁIN
UDALA · AYUNTAMIENTO

Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información municipal
2025 URRIA-OCTUBRE / Nº 45. ALEA

# ANTSOAIN



# JAIAK FIESTAS 2025

**Argitaratzailea:**
Antsoaingo Udala.
**Erredakzio Kontseilua:**
Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.
**Egilea:** Heda Comunicación, S.L.
**Argazkiak:** Jon Urriza, Pablo García.
**Ale kopurua:** 4.700 ale.
**Doako banaketa.**

**Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin.
**Consejo de Redacción:**
Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.
**Realiza:** Heda Comunicación, S.L.
**Fotografías:** Jon Urriza, Pablo García.
**Tirada:** 4.700 ejemplares.
**Difusión gratuita.**
**D.L. - L.G.:** NA 942-2016

**Industrialdearen erabilerak zehazteko prozesua**

**Proceso para redefinir los usos del polígono industrial**

**Euskara barra-barra Kultur Aroa programan**

**Euskera en abundancia en el programa Kultur Aroa**

**JARRAI GAITZAZU SAREETAN / SÍGUENOS EN REDES**

Antsoaingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin

Antsoaingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin

# Antsoain bizitegi-merkatu tenkatuko eremua da

# Ansoáin, zona de mercado residencial tensionado

Nafarroako Gobernuak hogei udalerri baino gehiago deklaratu ditu bizitegi-merkatu tenkatuko eremu (haien artean, Antsoain), joan den ekainean NAOn argitaratutako maiatzaren 19ko 157E/2025 Foru Aginduak ezarri bezalaxe. Agindua Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak eman zuen.
Inguru bat eremu tenkatua dela deklaratzeari esker, administrazio publikoak alokairuko merkatuan esku hartzeko aukera dauka, baldin eta frogatzen bada lurralde-eremu batean arriskuan dagoela etxebizitza eskuratzea, prezioen bilakaera neurrigabearen ondorioz; orduan, alokairuko prezioak mugatzeko eta maizterrak babesteko mekanismoak ezartzen dira, adibidez errentak eguneratzea mugatuz eta edukitzaile handiekin egiten diren kontratuen hasierako prezioa kontrolatuz.
Aginduaren arabera, hona hemen nor jotzen den edukitzaile handitzat: bizitegi-erabilerako hamar hiri-higiezin baino gehiagoren titular diren pertsona fisiko edo juridikoak; bizitegi-erabilerako 1.500 m²-tik gorako azalera eraikiaren titular direnak, garajeak eta trastelekuak kontuan hartu gabe; eta bizitegi-erabilerako bost hiri-higiezinen edo gehiagoren jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta bizitegi-merkatu tenkatuko eremuaren barnean badaude.
Foru Aginduarekin bat, ez dute etxebizitzen edukitzaile handien izaera izanen administrazio publikoek, haien mendeko sozietate publikoek eta etxebizitza babestuak kudeatzen dituzten kapital mistoko sozietateek.
Horrela, eremu tenkatuetako alokairua gehienez % 10 igo daiteke kontratu berrietan, baldin eta baldintza jakin batzuk betetzen badira, hala nola eraginkortasun energetikoa eta irisgarritasuna hobetzen duten berrikuntzak badaude edota kontratua hamar urtekoa edo gehiagokoa bada. Indarrean diren kontratuetarako, alokairurako erreferentzia-prezioen indizeak arautzen du urteko igoera, eta ezin du % 2 gainditu, 2023ko maiatzetik hona sinatutako kontratuetarako.
Deklarazioaren indarraldia hiru urtekoa da.

Ansoáin es uno de los más de 20 municipios que ha sido declarado por Gobierno de Navarra zona de mercado residencial tensionado, tal y como recoge la Orden Foral 157E/2025, de 19 de mayo, de la consejera de Vivienda, Juventud y Políticas Migratorias publicada en el BON el pasado mes de junio.
La declaración de zona tensionada es un instrumento que permite a la Administración Pública intervenir en el mercado del alquiler en ámbitos territoriales donde se acredita que el acceso a la vivienda se encuentra comprometido por una evolución desproporcionada de los precios, aplicando mecanismos de contención en los precios del alquiler y de protección de las y los arrendatarios, incluyendo la limitación de la actualización de rentas y el control del precio inicial de los contratos con grandes tenedoras.
Son consideradas grandes tenedoras de viviendas las personas físicas o jurídicas que sean titulares de más de diez inmuebles urbanos de uso residencial o una superficie construida de más de 1.500 metros cuadrados de uso residencial, excluyendo garajes y trasteros; las personas físicas o jurídicas propietarias de cinco o más inmuebles urbanos de uso residencial ubicados dentro de la zona de mercado residencial tensionado.
Según la Orden Foral, no tendrán la consideración de gran tenedora de vivienda las administraciones públicas, sus sociedades públicas dependientes, así como las sociedades de capital mixto dedicadas a la gestión de viviendas protegidas.
Así, en zonas tensionadas el alquiler puede subir hasta un 10% en nuevos contratos si se cumplen ciertas condiciones, como reformas que mejoren la eficiencia energética o la accesibilidad, o si el contrato es de 10 años o más. Para contratos existentes, la subida anual se rige por el Índice de Precios de Referencia para el Alquiler (IPRA) y no puede superar el 2% para contratos firmados después de mayo de 2023.
El periodo de vigencia de esta declaración es de tres años.

---



## Antsoainek herriko merkataritzaren lana aitortu du

## Ansoáin reconoce la labor del comercio local

■ Udalak hiru establezimenduren lana, ibilbidea eta ekimena hartu ditu aintzat, Antsoaingo merkataritza-sarearen erakusgarri. Lehen omenaldi honetan, Segura fruta-denda, Antxe taberna eta Ukimen Fisioterapia izan dira sarituak. Ekainaren 26ko ekitaldian, establezimenduen arduradunek plaka eta lore sorta bana jaso zuten, beren ahaleginaren, arduraren eta espiritu ekintzailearen esker onean eta, era berean, herriko ekonomiari eta komunitatearen hazkunde eta garapenari ekarpena egiten dietelako.

■ El Ayuntamiento ha reconocido la labor, trayectoria y emprendimiento de tres establecimientos como muestra del tejido comercial de Ansoáin. Frutería Segura, Bar Antxe y Ukimen Fisioterapia han sido los galardonados en este primer homenaje, que se llevó a cabo el 26 de junio. Sus responsables recibieron una placa y un ramo de flores como agradecimiento por su esfuerzo, dedicación y espíritu emprendedor, y por su contribución a la economía local y al crecimiento y desarrollo de la comunidad.

# Abian da industrialdearen erabilerak zehazteko prozesu parte-hartzailea

# Iniciado un proceso participativo para redefinir los usos del polígono industrial

Herritarrek 20 eguneko epea izan dute irailean ekarpenak aurkezteko

La ciudadanía ha contado en septiembre con un plazo de 20 días para presentar sus aportaciones



Udalak herritarren partaidetzan oinarritutako prozesu bat abiarazi berri du, Hiri Jarduketarako Plan Berezia (HJPB) izapidetu aurretik, gure udalerriko industrialdearen erabilera xehatuak eguneratzeko asmoz. Ekimenak eremu horretako lurzoruaren erabilerak malgutzea eta modu berri batean antolatzea proposatu du, hutsik dauden lurzatiak merkaturatzea erraztuz eta erabilera-malgutasun handiagoa izateko aukera emanez, aldi baterako bizitegi-erabilerak barne, hala nola hotelak eta ostatuak. Era berean, industria-eremuen eta inguruko bizitegi-guneen arteko bizikidetza hobetu nahi da, eskari berrietara eta indarrean dagoen arau-esparrura egokituz.

Herritarrek hainbat gairen inguruko ekarpenak aurkezteko aukera izan dute; esate baterako, ingurumenaren babesaz, sarbideen hobekuntzaz eta berdegune zein ekipamendu berrien plangintzaz.

Prozesua loteslea ez bada ere, Udalak esan du kontuan hartuko dituela bizilagunen ekarpen eta iradokizunak, azken proposamena lantzeko orduan.

Azterlanak hiru aukera proposatu ditu eta Udalak aukeratu duenak honako hau proposatzen du: ipar-mendebaldean kokatutako lurzatietan industria- eta merkataritza-erabilera misto berri bat martxan jartzea; zenbait eremutan ostatu-erabileren bateragarritasuna handitzea; Antsoain Errepidea kaleko lurzatietan merkataritza-erabilera ezartzea; erabilerak berrantolatzea, industria- eta bizitegi-eremuen arteko trantsizioa hobetzeko; eta oinezkoendako irisgarritasun urria duten eremuetan hirugarren sektoreko erabilerak murriztea.

Alternatiba horren bidez, jarduera ekonomiko berriak erakarri nahi dira, hirugarren sektoreko lurzoruaren geldialdia saihestu eta industrialdeari koherentzia funtzional handiagoa eman, bai eta araudia ezarri ere. Aldaketak udalerriko Plan Estrategiko onetsi berrian zein 2025eko Kudeaketa Planean daude jasota.

El Ayuntamiento ha puesto en marcha recientemente un proceso de participación ciudadana previo a la tramitación de un Plan Especial de Actuación Urbana (PEAU), con el objetivo de actualizar los usos pormenorizados del polígono industrial del municipio. Esta iniciativa busca flexibilizar y reordenar los usos del suelo en dicha zona, favoreciendo la comercialización de parcelas vacantes, y permitiendo una mayor flexibilidad de usos, incluyendo usos residenciales eventuales como hoteles o hostales. Asimismo, se busca mejorar la convivencia entre zonas industriales y áreas residenciales aledañas, adaptándose a las nuevas demandas y al marco normativo vigente.

La ciudadanía ha podido presentar sus aportaciones sobre aspectos como la protección del medio ambiente, la mejora de accesos y la planificación de nuevas zonas verdes y equipamientos. Aunque no se trata de un proceso vinculante, el Ayuntamiento se compromete a tener en cuenta estas aportaciones y sugerencias vecinales a la hora de elaborar una propuesta final.

La opción seleccionada por el Ayuntamiento entre las tres alternativas que presenta el estudio propone introducir un nuevo uso mixto industrial-comercial en las parcelas ubicadas en la zona noroeste; ampliar la compatibilidad de usos hoteleros en algunas zonas; establecer el uso comercial en las parcelas ubicadas en la calle carretera Ansoáin; reordenar usos para mejorar la transición entre áreas industriales y residenciales; y limitar usos terciarios en áreas con deficiente accesibilidad peatonal.

Con esta alternativa se busca atraer nuevas actividades económicas, evitar el estancamiento del suelo terciario y dotar al polígono de mayor coherencia funcional y normativa. Estas modificaciones se encuentran incluidas tanto en el recién aprobado Plan Estratégico de la localidad como en el Plan de Gestión Anual 2025.

# 2024-2030 Plan Estrategikoa herritarren aurrean aurkeztua

# Presentación ciudadana del Plan Estratégico 2024-2030

Udalak 2024-2030 Plan estrategikoa aurkeztu zuen joan den ekainaren 12an udal antzokian, herritarren aurrean. Jende eta talde askok urtebete baino gehiago eman dute agiria prestatzen Antsoain eraldatzeko asmoz, gure udalerriak ardatz izan ditzan bai pertsonen zaintza eta ingurumen-jasangarritasuna, bai ekitatea eta herritarren partehartze aktiboa. Helburua baita herriaren gaineko ikuspegi partekatu bat bultzatzea, herritarrak erdian jarriko dituena eta zaintza ardatz izanen duen gizarte inklusibo eta erresilientea eraikiko duena. Prozesuak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso du.

Plana zortzi ardatz tematikotan egituratua dago: Zaintzak, Genero Berdintasuna, Euskara, Kultura, Kirola, Hirigintza eta Jasangarritasuna, sexu eta Genero Aniztasuna, Berrikuntza Soziala eta Gobernantza. Ardatz bakoitzaren barnean, helburu estrategikoak eta berariazkoak zehaztu eta, haiekin bat, 20 ekintza-ildo taxutu dira. Bada, ildootatik abiatuta, hainbat proiektu eta ekintza diseinatu eta pixkanaka hedatzen joanen dira 2030. urtera arte. Agiri osoa udal webean jarriko da eskura (www.ansoain.es), eta bertan ere bizilagunen ekarpenak jasoko dira.



El Ayuntamiento presentó el pasado 12 de junio el Plan Estratégico 2024-2030 en un acto abierto a la ciudadanía celebrado en el Teatro municipal. El documento, que ha sido elaborado de forma colectiva durante más de un año, representa una apuesta por transformar Ansoáin en un municipio centrado en el cuidado de las personas, la sostenibilidad ambiental, la equidad y la participación activa, con el objetivo de impulsar una visión compartida del pueblo que ponga a la ciudadanía en el centro y construya una sociedad de cuidados, inclusiva y resiliente. El proceso ha recibido una subvención de Gobierno de Navarra.

El Plan se estructura en torno a ocho ejes temáticos: Cuidados, Igualdad de Género, Euskera, Cultura, Deporte, Urbanismo y Sostenibilidad, Diversidad Sexual y de Género e Innovación Social y Gobernanza. Bajo cada eje, se han definido objetivos estratégicos y específicos, que se traducen en un total de 28 líneas de acción de las que se desprenden múltiples proyectos y acciones que se desplegarán de forma progresiva hasta 2030. El documento completo estará disponible en la web municipal (www.ansoain.es), donde también se recogerán aportaciones vecinales.

---

## Antsoainek ia 700.000 euroko aurrezpen garbiarekin itxi ditu 2024ko kontuak

Ekainaren 27an egindako osoko bilkuran, Antsoaingo Udalak 2024ko ekitaldiko kontu orokorra onartu zuen, 193.031 euroko superabitarekin. Ekitaldiko behin betiko aurrekontua 12.334.764 eurokoa izan zen. Zenbateko horretan sarturik daude bai hasierako aurrekontua (11.382.331 euro), bai ondotik erantsitako partidak (952.432 euro). Horrenbestez, kontuan harturik 193.031 euroko superabita izan dela eta ia 1,6 milioi euro daudela diruzaintzan, udalerria gauza da arestian azaldutako plan estrategikoa garatzeko.

Dirulaguntzen bidez finantzatutako jarduera nabarmenen artean, honako hauek daude: sarbide eta birgaitze obrak (152.582 €); udaletxeko plazako gabeziak konpontzea (126.874 €); kirol-instalazioak hobetzea (120.312 €); aurrekontu partehartzaileak (108.195 €); energia fotovoltaikoaren instalazioa Ezkaba ikastetxean (85.392 €); argiteria publikoa berritzea (81.699 €); Harrobiak kaleko esku-hartzea (45.000 €); adinekoen jantoki kolektiborako ekipamendua (30.000 €); esku-hartzeak Haur Eskolan eta Ezkaba ikastetxean (43.903 €).

## Ansoáin cierra las cuentas de 2024 con un ahorro neto de casi 700.000 euros

En el pleno celebrado el 27 de junio, el Ayuntamiento de Ansoáin aprobó la Cuenta General correspondiente al ejercicio 2024, que presenta un superávit de 193.031 euros. El presupuesto definitivo del ejercicio ascendió a 12.334.764 euros. Esta cifra incluye el presupuesto inicial (11.382.331 euros) y altas por importe de 952.432 euros. Con 193.031 euros de superávit y un remanente de casi 1,6 millones de euros, el municipio sienta las bases para desarrollar el Plan estratégico presentado anteriormente.

Entre las actuaciones más destacadas financiadas mediante subvenciones figuran: obras de acceso y rehabilitación (152.582 €); reparación deficiencias plaza consistorial (126.874 €); mejora de instalaciones deportivas (120.312 €); presupuestos participativos (108.195 €); instalación energía fotovoltaica en el colegio Ezkaba (85.392 €); renovación del alumbrado público (81.699 €); intervención calle Canteras (45.000 €); equipamiento para comedor colectivo de personas mayores (30.000 €); intervenciones en la Escuela Infantil y el Colegio Ezkaba (43.903 €).

# Udalak bilera egin du herri zaharreko bizilagunekin baso-suteei aurrea hartzeko jarduketak azaltzeko

# Reunión en el pueblo viejo con vecinos y vecinas para explicar las actuaciones de prevención de incendios

Antsoaingo herri zaharrak arrisku handiagoa du baso-sute bat izateko, duela bi urte Ezkaba mendian gertatu zenaren antzekoa. Hori dela eta, Udala herri zaharreko bizilagunekin bildu zen joan den ekainaren 24an, eta azaldu zien zer egiten ari diren arriskuari aurrea hartzeko, Baso Suteak Prebenitzeko Udal Jarduketa Planean aurreikusitakoarekin bat. Plana iaz prestatu zen.
Herri zaharreko herritarrei arreta eta informazioa ahalik eta azkarren emate aldera, whatsapp kanal bat jarriko da abian, larrialdien berri emateko eta nola jokatu behar den jakinarazteko. Beste bitarteko batzuk ere ezarriko dira bestelako komunikazio-bide tradizionalagoak nahiago dituzten pertsonentzat. Gainera, herri zaharra ebakuatu behar izanez gero, laguntza jaso beharko luketen pertsonen errolda eginen da. Egoera horretako jendeak Idaki kiroldegira jo beharko luke, premiazko aterpetxe gisa egokitua egonen baita.



El pueblo viejo de Ansoáin presenta un mayor riesgo de sufrir un incendio forestal, como el que se produjo hace dos años en el monte Ezkaba. Por este motivo, el Ayuntamiento mantuvo el pasado 24 de junio una reunión con el vecindario en la que explicó qué actuaciones de las previstas en el marco del Plan de Actuación Municipal para la Prevención de Incendios Forestales (PAMIF), elaborado el año pasado, se están aplicando.
Con el fin de atender e informar a la ciudadanía del pueblo viejo lo más rápido posible se va a poner en marcha un canal de WhatsApp en el que se avisará de las emergencias y de cómo proceder. Se establecerán también otros medios para personas que prefieren otras vías de comunicación más tradicionales. Además, se va a realizar un censo de personas que necesitarían asistencia en caso de una evacuación, a las que se trasladaría al lugar acondicionado como albergue urgente en las instalaciones del polideportivo municipal Idaki.

---

## Egin zure ekarpenak 2026ko aurrekontu partehartzaileei

## Haz tus aportaciones al presupuesto participativo

Aurten ere, Antsoainen erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonek (edo 2025ean betetzen dutenak) eta Udalaren Elkarte Erregistroan izena emana dauden erakunde eta elkarteek (salbu aurretik onuradun izan diren pertsonak eta erakundeak) proposamenak aurkezten ahalko dituzte 2026ko aurrekontu partehartzaileetan. Obra berriei, mantentze-lanei eta inbertsioei buruzko ekimenak izan daitezke, bai eta udal eskumeneko jarduera edo programei buruzkoak ere (kirolak, berdintasuna, kultura, euskara, gizarte gaiak, hiria mantentzeko lanak, etab.). Era telematikoan (**https://sedeelectronica.ansoain.es**) eta aurrez aurre aurkeztu daitezke udal bulegoetan. Formulario bat betetzeaz gain, ekimena azaltzen duen txostena eta gutxi gorabeherako aurrekontua aurkeztu behar dira.
Udal teknikariek ekimen guztiak baloratuko dituzte eta, bideragarriak direnen artean, Gobernantza partehartzaileko, Hirigintzako eta Toki Garapeneko Batzordeak 4 aukeratuko ditu gehienez, eta herritarrek haien gaineko botoa emanen dute, dela udal webean, dela 012 zenbakian, dela aurrez aurre, horretarako ezarriko diren tokietan.

Un año más, las personas empadronadas en Ansoáin mayores de 16 años (o que los cumplan en 2025) y las entidades y asociaciones inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones (a excepción de aquellas personas y entidades que ya han sido beneficiarias anteriormente) podrán presentar propuestas al Presupuesto Participativo 2026. Tienen cabida iniciativas que afecten a obras (nuevas o de mantenimiento), inversiones y actividades o programas de competencia municipal (deportes, igualdad, cultura, euskara, sociales, mantenimiento urbano, etc.). Se pueden presentar de forma telemática (**https://sedeelectronica.ansoain.es**) y presencialmente en las oficinas del Ayuntamiento. Es necesario rellenar un formulario y aportar memoria descriptiva y presupuesto aproximado.
Personal técnico municipal las valorará y, de entre las viables, la Comisión de Gobernanza participativa, Urbanismo y Desarrollo Local elegirá un máximo de 4 que se someterán a votación popular. Se podrá votar en la web municipal, en el 012 y presencialmente en lugares establecidos para ello.

# Antsoain bere Mugikortasun Plana eguneratzen ari da

# Ansoáin actualiza su Plan de Movilidad Sostenible

Antsoaingo Udala Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana egokitzeko prozesu betean ari da. Plana 2021ean onetsi zen, herriko beharretara eta Klima Aldaketari buruzko Foru Lege berrira egokitzeko. Mugikortasun Plan berriaren helburuak herritarrei azaltzeko saio irekia egin zen joan den irailaren 9an eta, halaber, jakinarazi zen zer neurri nagusi jarriko diren abian klima-aldaketa arintzen laguntzeko, esparru publiko osasungarri, ekitatibo eta inklusiboa sortzeko eta udalerriko kide izatearen sentimendua sendotzeko.
Partaidetza-saioan, bertaratuetako batzuek hitza hartu eta ekarpenak egin zizkioten planari. Udal gobernu taldeak adierazi zuen ekarpenak aztertu eta aurrerantzean eginen diren jarduketetan kontuan hartuko dituela.

El Ayuntamiento de Ansoáin se encuentra en pleno proceso de adaptación del Plan de Movilidad Urbana Sostenible (PMUS) aprobado en 2021 con el objetivo de adecuarlo a las necesidades de la localidad y a la nueva Ley Foral de Cambio Climático.
Para dar a conocer a la población los objetivos del nuevo Plan de Movilidad se celebró el pasado 9 de septiembre una sesión participativa en la que se expusieron las principales medidas que van a ponerse en marcha con el objetivo de contribuir a la mitigación del cambio climático, generar un espacio público saludable, equitativo e inclusivo y fortalecer el sentimiento de pertenencia al municipio.
En la sesión participativa tomaron la palabra varias de las personas asistentes para realizar aportaciones al plan, y el equipo de gobierno municipal se comprometió a analizarlas y tenerlas en cuenta en las futuras actuaciones que se lleven a cabo.

## Udalak irudi berria estreinatu du / El Ayuntamiento estrena nueva imagen

Udalak bere identitate bisuala eguneratu du, erakundearen irudia euskarri berrietara egokitzeko eta bere ikusgarritasuna sendotzeko, bere sustraien zein identitatearen funtsezko elementuak mantenduta.
Diseinu berrian, armarriaren egitura sinplifikatu eta Ezkaba mendiaren silueta eta eguzki bat sartu dira. Arkumea mantendu da, gure herriari lotutako osagai historikoa baita. Herriaren izena lehen planoan ageri da bi hizkuntza ofizialetan. Koloreak ere sinplifikatu dira, betiko tonu urdinak mantenduta.

ANTSOAIN
ANSOÁIN
UDALA · AYUNTAMIENTO

El Ayuntamiento ha actualizado su identidad visual para adaptar su imagen institucional a los nuevos soportes digitales y reforzar su visibilidad, manteniendo los elementos esenciales de sus raíces e identidad.
En el rediseño, se ha simplificado la estructura del escudo y se han incorporado la silueta del monte Ezkaba y un sol. Se ha mantenido el cordero, elemento histórico vinculado al municipio.
El nombre del municipio aparece en primer plano en las dos lenguas oficiales. La paleta cromática se ha simplificado, manteniendo los tonos azules tradicionales.

## San Kristobal Gotorlekua, Memoria Demokratikoaren Leku

Lurralde Politikarako eta Memoria Demokratikorako Ministerioak prozedura abiarazi berri du San Kristobal Gotorlekua Memoria Demokratikoaren Leku izendatzeko. Orain, kontsultak eta txostenak egiteko epealdi bat ireki da eta, 12 hilabetean gehienez, behin betiko erabakia hartu beharko da. Hainbat erakunde arituko dira orain ireki den epealdian, hala nola Defentsa Ministerioa (gotorlekuaren jabea baita), Berriobeitiko Udala, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Memoriaren Nafarroako Institutua eta Historiako Errege Akademia.
Ministerioaren arabera, gotorlekua Memoria Demokratikoaren Leku bihurtzea justiziazkoa da biktimentzat eta, gainera, funtsezko tresna egia historikoa babestu eta transmititzeko.
Toki bat Memoria Demokratikoaren Leku izendatzea garrantzitsua da, huraxe behar bezala iraunarazi, identifikatu, azaldu, zabaldu, interpretatu eta seinaleztatu behar delako, eta gainera, memoria demokratikoari buruzko ibilbide fisiko eta birtualen sustapen egokia egiteko aukera ematen duelako, jendeak hori guztia ongi ezagutu eta bisitatu dezan.

## El Fuerte de San Cristóbal, Lugar de Memoria Democrática

El Ministerio de Política Territorial y Memoria Democrática ha iniciado recientemente el procedimiento de declaración como Lugar de Memoria Democrática del Fuerte de San Cristóbal. Se abre ahora un periodo de realización de consultas e informes en el que participarán el Ministerio de Defensa, el Ayuntamiento de Berrioplano, la Universidad Pública de Navarra, el Instituto Navarro de la Memoria y la Real Academia de la Historia, que deberá concluir con la declaración definitiva en el plazo máximo de 12 meses.
Según señala el Ministerio, su declaración como Lugar de Memoria Democrática no solo es un acto de justicia hacia las víctimas, sino también una herramienta fundamental para preservar y transmitir la verdad histórica.
La declaración de un Lugar de Memoria Democrática es importante porque implica la obligación de garantizar su perdurabilidad, identificación, explicación, difusión e interpretación y señalización adecuada, y permite impulsar la promoción de itinerarios físicos y virtuales de memoria democrática para que puedan ser conocidos y visitados.

# Drogen eta beste adikzio batzuen kontsumoari buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpaina

# Campaña de sensibilización y prevención en relación al consumo de drogas y otras adicciones Democrática

Aurten ere, Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak drogen kontsumoari eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpaina egin du, “Menpekotasuna eskatu gabe etortzen da. Spoiler, aske izatea da zure istorio onena” lelopean. Kanpainaren helburu orokorra da arrisku-kontsumoak eta portaera-adikzioak murriztea, bai eta komunitatean dituzten ondorioak murriztea ere eta, horrekin batera, horien gaineko kontzientzia sortzea. Horretarako banatu den kartelaren helburua da gogoeta eginaraztea drogen kontsumoari eta mundu digitalarekin eta zorizko jokoekin lotutako beste adikzio batzuei buruz, zoritxarrez gero eta gehiago baitaude gazteen eskura. Eragindako gazteen ehunekoa etengabe hazten ari da, kirol apustuak ugaritzen ari direlako eta online joko plataformetara sarbide erraza dutelako. Nafarroan, bost gaztetatik 1ek egin du apustu azken urtean.

Kanpaina udalerriek eta Mankomunitateak berak dituzten informazio-paneletan, webguneetan eta sare sozialetan hedatzen ari da, bai eta taberna, txosna eta etxabeetan ere, eta halaber, hainbat argitalpen egiten ari dira astero #askeizan traolaren bidez.

Herri bakoitzeko festetan, gainera, karpa bat paratu da zalantzak argitzeko eta galderak egiteko, adostasunean, atseginean, gozamenean eta zaintzan oinarritutako harreman afektibo-sexualei buruz; prebentzio-materiala ere banatu da doan (preserbagailuak, lubrikatzaileak) eta jarduketa-protokoloak jarri dira abian jaien testuinguruan nola jokatu jakiteko, kontsumoetan arriskuak murrizteko eta eraso sexistak saihesteko, barra lana beren borondatez egiten duten pertsonei zuzenduta.




La Mancomunidad de Servicios Sociales de Ansoáin, Berrioplano, Berriozar, Iza y Juslapeña ha realizado un año más la campaña de sensibilización y prevención en el consumo de drogas y otras adicciones sin sustancia, bajo el lema “La dependencia viene sin pedirla. SPOILER: ser libre es tu mejor historia”. El objetivo es generar conciencia y disminuir los consumos de riesgo y las adicciones comportamentales y sus consecuencias en la comunidad. Para ello, se ha repartido un cartel con el que se pretende hacer reflexionar sobre el consumo de drogas y otras adicciones relacionadas con el mundo digital y con los juegos de azar que desafortunadamente están cada vez más al alcance de las personas jóvenes. El tanto por ciento de jóvenes afectado no deja de crecer debido a la proliferación de las apuestas deportivas y el fácil acceso a las plataformas de juego online. En Navarra 1 de cada 5 jóvenes ha apostado en el último año.

La campaña se está difundiendo a través de los paneles informativos, páginas web y redes sociales de los municipios y de la propia Mancomunidad, además de en bares, txoznas y bajeras, y también se están realizando varias publicaciones semanales que pueden visualizarse a través del hastag #serlibre.

Además, durante las fiestas de cada localidad se ha instalado una carpa para resolver dudas y consultas relacionadas con las relaciones afectivo-sexuales basadas en el consentimiento, el placer, el disfrute y los cuidados, se ha repartido gratuitamente material preventivo (preservativos, lubricantes) y se han puesto en marcha protocolos de actuación en el contexto de fiestas sobre reducción de riesgos en los consumos y para evitar agresiones sexistas dirigido a las personas que hacen barra de manera voluntaria.



# Antsoaingo Udalak genero-ikuspegia hartzen du kontuan aurrekontuak lantzeko

# El Ayuntamiento de Ansoáin trabaja en unos presupuestos con perspectiva de género

Antsoaingo Udalak genero-ikuspegiarekin bat landu nahi ditu udal aurrekontuak eta horixe jorratzen ari da, joan den maiatzaz geroztik, Likadi enpresaren bidez. Helburua da halako prozesu bat diseinatzea elkarlanean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa udal aurrekontuetan pixkanaka txertatzeko.

Horrez gain, genero-eragina aurrez ebaluatzeko txostenaren prestaketa diseinatzen eta arautzen ari dira. Urteko aurrekontuen kudeaketaz arduratzen diren udal alor guztiak ari dira prozedura lantzen, eta aurreikuspenen arabera, urri honetan bertan eramanen da bururaino, udal langileei barne aurkezpena egin eta gero.

El Ayuntamiento de Ansoáin inició el pasado mes de mayo un procedimiento para elaborar los presupuestos municipales con perspectiva de género. El objetivo de este proceso, que está realizando la empresa Likadi, es diseñar colaborativamente un proceso de integración progresiva del principio de igualdad de mujeres y hombres en los presupuestos del Ayuntamiento, además de diseñar y pautar la elaboración del informe de evaluación previa del impacto de género en los presupuestos. En el procedimiento están trabajando todas las áreas del Ayuntamiento que se encargan de la gestión de los presupuestos anuales, y finalizará el presente mes de octubre tras una presentación interna al personal municipal.

## Emozioak eta ahalduntzea kirolaren bidez lantzeko saioak

Joan den irailaren 26an, "Kirola eta emozioak" tailerra jarri zen abian, generoan aditua den Esther Casal gizarte-laguntzaile eta kirol coach-ek dinamizatua. Guztira, 10 saio antolatu eta ostiraletan emanen dira, Idaki kirol-instalazioetako 4. gelan, 17:00etatik 18:30era. Honatx egunak: irailak 26, urriak 10, 17, 24 eta 31, azaroak 7, 14, 21 eta 28, eta abenduak 12. Kirol eta prestakuntza tailer terapeutiko honen bidez, onura fisikoa, emozionala eta ahalduntzea eragin nahi da, bai banaka bai taldeka. Tresna nagusia kirola izanen da.

## Sesiones para trabajar las emociones y el empoderamiento a través del deporte

El pasado 26 de septiembre se puso en marcha el taller "Deporte y emociones", dinamizado por la trabajadora social, coach deportiva y experta en género Esther Casal. En total se han organizado 10 sesiones que se desarrollarán los viernes 26 de septiembre, 10, 17, 24 y 31 de octubre, 7, 14, 21 y 28 de octubre y 12 de diciembre en la sala 4 de las instalaciones deportivas Idaki, de 17:00 a 18:30 horas. Se trata de un taller deportivo, formativo y terapéutico cuyo objetivo principal es proporcionar beneficio físico, emocional y empoderamiento a nivel individual y grupal, con la práctica deportiva como herramienta principal.




## "Ezagutu eta zaindu zure pelbis-zorua" tailerraren edizioa berria

Urrian emanen da astelehenero "Ezagutu eta zaindu zure pelbis-zorua" tailerra (hilak 6, 13, 20 eta 27), arratsaldean, Harrobi Zentroan. Saioak Lidón Sorianok emanen ditu. Horrela, hainbat teknika erabiliz, gorputzarekin harreman atsegin eta osasuntsuan sartzen lagunduko die emakume parte-hartzaileei.

## Nueva edición del taller "Conoce y cuida tu suelo pélvico"

El taller "Conoce y cuida tu suelo pélvico" se va a impartir todos los lunes de octubre (días 6, 13, 20 y 27) en horario de tardes en el Centro Harrobi. Las sesiones correrán a cargo de Lidón Soriano, quien, a través de varias técnicas, ayudará a las mujeres participantes a establecer una relación amable y sana con el cuerpo.

# Gero eta parte-hartze handiagoa auzolanean lantzen den emakumeen hiri baratze ekologikoan

# Crece la participación en la huerta urbana ecológica de mujeres cultivada en *auzolan*

2016az geroztik, Antsoaingo emakumeek baratze bat dute produktu ekologikoak auzolanean lantzeko, Jimeno Jurío kalean. Udaleko Berdintasun Zerbitzuak lagundurik dihardute. Lursailak 250 metro ditu eta 15 baratze-maila daude, emakumeek produktu ekologikoak lantzeko eta biltzeko.
Ekimenak jasangarritasuna du xede, bai eta emakumeen ahalduntzea eta sareak sortzea ere. Baratzea martxan jarri zenean, proiektuan ari diren emakumeek prestakuntza jaso zuten, Arrea Agroekologia Elkartearen eskutik. Ekimena Nafarroako Gobernuak hartu zuen aintzat 2016an, Garapen Jasangarriko Jardunbide Onenak saria eman baitzion.
Aurten, 10 emakume aritu dira baratzea lantzen. Ekimena irekia da, hau da, jende gehiago sar daiteke. Horrenbestez, interesa baduzu, eskatu informazioa igualdad@ansoain.es posta elektronikoan.



Desde el año 2016, las mujeres de Ansoáin disponen de una huerta para el cultivo de productos ecológicos en auzolan en la calle Jimeno Jurío. Es un espacio apoyado por el Servicio de Igualdad del Ayuntamiento, que cuenta con 250 metros y 15 bancales, donde las mujeres se organizan para el cultivo y recogida de productos ecológicos. Se trata de una iniciativa que busca la sostenibilidad, así como el empoderamiento de las mujeres y la creación de redes. Cuando el huerto se puso en marcha, las mujeres participantes en el proyecto recibieron una formación por parte de Arrea, Asociación de Agroecología. La iniciativa fue premiada por el Gobierno de Navarra con el título de Mejores Prácticas de Desarrollo Sostenible 2016.
Este año, son 10 mujeres las que participan cultivando la huerta en esta iniciativa que continúa abierta a nuevas incorporaciones. Las personas interesadas pueden solicitar más información en el correo electrónico igualdad@ansoain.es.




ESCUELA NIDHAN
T. 626 614 327 • Berriobide, 36 (Antsoain)
www.escuelanidhan.com escuela_nidhan
¿Quieres desconectar del ajetreo diario?
Descubre la calma y el bienestar a través del **YOGA**.
Horarios flexibles, estilos variados
y clases para todos los niveles.

ansoain
CHAPISTAS
Hermanos Noain, 15
Ansoain-Antsoain
Tel. 948 590 818





# Euskara barra-barra Kultur Aroa programan

# Euskera en abundancia en el programa Kultur Aroa

Aurten ere, azaroa hilabete berezia izango da Antsoaingo herriko euskaldunentzat. Kultur Aroa programak jarduerak eta ekitaldiak euskaraz egiteko eskaintza dakar: azaroaren lehen asteburuan 'Miñan' antzezlan arrakastatsuaren emanaldia izango da. Antzezpenaz gain, Amets Arzallus egileak hitzaldi bat emango du hilabete horren 6an. Bestalde, hurrengo asteburu batean 'irakurketa partekatua' egingo da udaletxeko areto nagusian: Antsoaingo 40 lagun euskaldunek liburu bat ozen eta publikoki irakurriko dute, bakoitzak zatitxo bat eta musikaren laguntzaz. Iaz izan zen lehenengo edizioa, eta arrakasta handia izan zuen.
Ez dira falta ohiko ekitaldi batzuk: ipuin kontalaria (azaroaren 26an), liburu baten aurkezpena bere idazlearekin, Eguberriari begira antolatzen den jostailuen erakusketa, eta Ezkaba ikastetxetik emitituko den Euskalerria Irratiko irratsaio berezia. Prest egon gaitezen, bada, udazken honetan gure herrian euskara barra-barra erabiltzeko.

Un año más, noviembre será un mes especial para las personas euskaldunes de la localidad de Ansoáin. El programa Kultur Aroa llega con una oferta de actividades y eventos en euskera: el primer fin de semana de noviembre tendrá lugar la representación de la exitosa obra de teatro 'Miñan '. Además de la representación, el autor Amets Arzallus ofrecerá una conferencia el día 6 de ese mes.
Por otro lado, uno de los siguientes fines de semana se realizará una 'lectura compartida 'en el salón de actos del Ayuntamiento: 40 personas euskaldunas de Ansoáin leerán un libro en voz alta y públicamente, cada una un trocito y acompañado con música. El año pasado tuvo lugar la primera edición, que tuvo un gran éxito.
No faltan algunos de los actos habituales: el cuentacuentos (26 de noviembre), la presentación de un libro junto con su escritor, la exposición de juguetes que se organiza de cara a la Navidad, y el programa especial de radio de Euskalerria Irratia que se emitirá desde el colegio Ezkaba. Estemos dispuestos, pues, a utilizar el euskera en abundancia en nuestro pueblo este otoño.

## Kirola euskaraz Antsoainen

Urtez urte, kirola euskaraz egiteko aukera zabaltzen ari gara gure herrian emeki-emeki, eta aurten ere urrats txiki bat eman nahi dugu. Orain arte euskarazko kirol eskaintza txikienei zuzendua egon da nagusiki eta, zoritxarrez, adinean gora egin ahala, eta salbuespenak salbuespen, euskarazko taldeak desagertzen hasten dira. Azken urteotan dinamika hori birbideratzeko neurriak hartu dira, herriko kirol taldeekin sinatu diren hitzarmenei esker.
Kurtso berri honetan, helduen kirola indartzea da helburu. Horretarako bi eskaintza eginen zaizkie Idakiko abonatuei euskaraz egiteko: Indarra, Yoga eta Helduentzako igeriketa diziplinak. Idakin kontsultatu daitezke ordutegiak; beraz, kirola euskaraz egin nahi duen pertsonak aukera bat du Antsoainen.

## Deporte en euskera en Ansoáin

Año tras año, vamos abriendo poco a poco la posibilidad de practicar deporte en euskera en nuestro pueblo, y este año también queremos dar un pequeño paso. Hasta ahora la oferta deportiva en euskera ha estado dirigida principalmente a las y los más pequeños y, por desgracia, a medida que aumenta la edad, y salvo excepciones, los grupos en euskera empiezan a desaparecer. En los últimos años se han adoptado medidas para reorientar esta dinámica gracias a los convenios que se han firmado con los equipos deportivos de la localidad.
En este nuevo curso, el objetivo es potenciar el deporte de personas adultas. Para ello se realizarán tres ofertas en euskera a las personas abonadas de Idaki: las disciplinas de Fuerza, Yoga y Natación de adultos. Los horarios se pueden consultar en Idaki. Por lo tanto, quien quiera practicar deporte en euskera tiene una opción en Ansoáin.

# ¡Tú sí que vales!
# Jakina balio duzula!



## Acreditación de competencias profesionales

Si la falta de un título de formación ha dificultado tu integración laboral, promoción profesional o reconocimiento, ahora puedes conseguirlo.

## Gaitasun profesionalak egiaztatzea

Prestakuntza-titulurik ez izateak zure lan-integrazioa, sustapen profesionala edo gizarte-onarpena zaildu baditu, hau da zure unea.

***Infórmate aquí / Informa zaitez hemen:***

**www.atana.org / formacion**

atana
Clúster de tecnología y consultoría

info@atana.org
600 595 592
calle Emilio Arrieta 8, 7ª planta / 31002 Pamplona

atana Clúster de tecnología y consultoría
Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua
Agenda 2030
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
Gobierno de España | Ministerio de Educación, Formación Profesional y Deportes
Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak finantzatuta
NextGenerationEU

## Ekaineko kanpaldia Harrobin / Campamento de junio en Harrobi



Gaztetxiki, Gaztehandi eta Gazteskola taldeek Abaigarren ekin zioten udari, hamaika jarduera eginda: uretako jolasak, ginkana, jokoak, kuxkuxero, igerilekua, Murietako errekako ibilbidea, eta kayak parkean Gaztehandirekin. Kanpaldian, 40 lagun inguruk parte hartu zuten, ikasturteari jolas giro ederrean akabera emanda.

Los grupos de Gaztetxiki, Gaztehandi y Gazteskola comenzaron el verano en Abaigar, donde llevaron a cabo juegos de agua, gyncana, juegos, kuxkuxero, excursión a la piscina, ruta al río de Murieta y kayak en el parque con Gaztehandi. En el campamento participaron 40 personas, cerrando el curso de la mejor manera.

## Harrobi, jaietan buru-belarri / Harrobi se suma a las fiestas

Irailaren 20an, 3x3 kirol txapelketa egin zen goizez Antsoaingo haur eta gazteentzat, guztiek ere herri txapelketa horretan gogotik parte hartuta. Ondoren, bazkaria egin zen Gazteskolako talde guztiekin, eta 30 lagun inguruk paella goxo-goxoa ahogozatu zuten.

El 20 de septiembre se llevó a cabo por la mañana un campeonato 3x3 deportivo en el que jóvenes y txikis de Ansoáin pudieron participar en el torneo popular. Después se celebró una comida con todos los grupos de la Gazteskola, en la que alrededor de 30 personas disfrutaron de una buena paella.

## Ikasturte berrian, jarduerak berriro abian / Vuelven las actividades con el nuevo curso

Laster, Gaztetxiki, Gaztehandi eta Gazteskolako jarduerak berrasiko dira, eta horrez gain, oilategia, Harrobirekin hizketan eta aholkularitza sexologikoa itzuliko dira Harrobira. Bai eta lan-poltsa ere.
Irailean, Harrobi erakusteko bisita gidatuak eskaini zaizkie Ezkaba, Doña Mayor eta Cardenal Ilundain ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako gazteei. Horrela, bertaratu ziren gazteek lehen eskutik eta zehatz-mehatz jakin zuten zertan dantzan Harrobi proiektua.

En breve darán comienzo los programas Gaztetxiki, Gaztehandi y Gazteskola, y Harrobi seguirá con el gallinero, Harrobirekin hizketan y la asesoría sexológica. También continuará la bolsa de trabajo.
Durante el mes de septiembre se ofrecieron visitas guiadas a jóvenes de 6º de Primaria de los centros educativos Ezkaba, Doña Mayor y Cardenal Ilundain en las que quienes se sumaron a la iniciativa pudieron conocer de primera mano el proyecto Harrobi.

## Udako ludoteka haurrentzat / Ludoteca de verano para los y las txikis




Abuztuko azken astean, jolasak, ibilaldiak eta igerilekura joateko txangoak egin ziren, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrekin. Beraz, ludotekaren bidez, Harrobi eta bertako proiektua gehixeago ezagutzeko parada izan zuten. Gainera, begiraleak Gazte Eskolako kide adinekoenak izan ziren.

Durante la última semana de agosto se realizaron juegos, paseos y excursiones a la piscina con los y las más pequeñas de 3º y 4º de Primaria, que a través de la ludoteca tuvieron la oportunidad de conocer un poco más Harrobi y su proyecto. Además, los y las monitoras fueron integrantes de la Gazte Eskola de los y las de más edad.

# Jantoki komunitarioa berriro zabalik, ikasturte hasiera honetan

# El comedor comunitario reanuda su actividad con el inicio del curso

'Antsoain, Zaintzen duen Herria' programaren baitan, jantoki komunitarioko zerbitzuaren bi modalitateak daude: aurrez aurrekoa eta etxez etxekoa. Etxez etxeko jantokia egunero dago irekia, hau da, urteko 365 egunetan, eta orain, 10 lagun artatzen ditu: 3 gizon eta 7 emakume. Aurrez aurreko jantoki sozialari dagokionez, irailaren 5ean berreldu zion eta astelehenetik ostiralera eskaintzen da eskola-egutegiarekin bat. 40 lagun artatzen ditu: 30 emakume eta 10 gizon.

Dentro del programa 'Ansoáin Comunidad que Cuida' se encuentra el servicio de comedor comunitario en sus dos modalidades: presencial y a domicilio. El comedor a domicilio se mantiene en marcha durante los 365 días del año y atiende a 10 personas, en este momento 3 hombres y 7 mujeres. En cuanto al comedor social in situ, que reanudó su actividad el 5 de septiembre, se mantendrá durante el calendario escolar de lunes a viernes, dando servicio a 40 personas, de las cuales 10 son hombres y 30 mujeres.

## Jarduera sorta zabala 60 urtetik gorakoentzat eta/edo dibertsitate funtzionala dutenentzat / Oferta variada de actividades para mayores de 60 años y/o con diversidad funcional

■ Ikasturte honetan ere, "Antsoain, Zaintzen duen Herria" programak jarduera sorta zabala eskaini die 60 urtetik gorako pertsonei eta/edo dibertsitate funtzionala dutenei. Izena emateko lehen txanda maiatzaren 21etik 28ra egin zen. Talde guztiak bete ez zirenez, bigarren txanda egin da irailaren 8tik 12ra. Jarduerak ikasturte osoan eginen dira astero, urritik maiatzera, Ostokin, Harrobin eta Liburutegi Publikoan. Eskaintzaren barnean daude dantzak lerroan (hiru talde: hastapena, tartekoa eta aurreratua), kriskitinak, sevillanak (hastapena eta aurreratua), ibilaldi osasungarriak, irakurketa taldea (bi hilean behin), mugikorraren erabilera (hastapena eta tarteko maila), historia eta gaurkotasuna, historia eta artea, martxa nordikoa (hastapena eta aurreratua), estimulazio kognitiboa, antzerkia, emozioak lantzeko kirola, eta Chi Kung.

■ El programa 'Ansoáin Comunidad que Cuida' ofrece de nuevo este curso diversas actividades dirigidas a personas mayores de 60 años y/o con diversidad funcional. La primera tanda de inscripciones se llevó a cabo del 21 al 28 de mayo, y como no se completaron todos los grupos, se hizo una segunda tanda del 8 al 12 de septiembre.
Las actividades se llevarán a cabo durante todo el curso semanalmente, de octubre a mayo, en Ostoki, Harrobi y la Biblioteca Pública. La oferta incluye bailes en línea (tres grupos de iniciación, medio y avanzado), castañuelas, sevillanas (iniciación y avanzado) paseos saludables, club de lectura (bimensual), uso del teléfono móvil (iniciación y nivel medio), historia y actualidad, historia y arte, marcha nórdica (iniciación y avanzado), estimulación cognitiva, teatro, deporte para las emociones y Chi Kung.

## 150 lagun baino gehiago, Jaietako paella jate herrikoian / Más de 150 personas participan en la paellada popular de Fiestas



■ Paella jate herrikoia irailaren 18an egin zen, ostegunarekin, 60 urtetik gorakoei eta/edo dibertsitate funtzionala dutenei zuzendua, eta 151 lagun bertaratu ziren. Lapurbide plazan egin zen eta, bazkalondoren, DJ bat aritu zen. Paellak auzolanean prestatu ziren, izena emandako guztien artean, eta bazkalondoren, parte-hartzaile guztiak txupinazoa ikustera joan ziren.

■ El jueves 18 de septiembre tuvo lugar la paellada popular dirigida a la gente mayor de 60 años y/o con diversidad funcional, a la que asistieron 151 personas, que se celebró en la plaza Lapurbide seguida de la actuación de un DJ. Las paellas se prepararon mediante auzolan, cocinando entre todas las personas apuntadas, y después de la comida todas las personas participantes se acercaron a ver el chupinazo.

# JAIAK FIESTAS 2025

















TALLERES PAMPLONA
Hermanos Noáin, 58 · Ansoáin · T 848 411 434
www.tallerespamplona.com

Reparación de carrocería y pintura
Averías mecánicas y eléctricas
Mantenimiento de todas las marcas
10 Coches de sustitución
Amplio horario contínuo de lunes a viernes, de 8:30 a 19:00 h
Descuentos en mantenimiento, franquicias y por ser cliente habitual








MESA 1











# Kirol denboraldia hasi da Antsoainen

# Comienza la temporada deportiva en Ansoáin

Kirola haurtzaroan eta gaztaroan egiteak mesede egiten dio hazkuntza fisikoari eta mentalari eta, horrez gain, ona da sozializazioa, diziplina eta konfiantza sustatzeko, eta behar bezalako oinarriak sortzen ditu etorkizunean bizitza aktiboa eta osasungarria izateko. Hori dela eta, oso aukera ona da Kirol Zerbitzuak eta kirol klubek eskaintzen dituzten jardueretako batean parte hartzea. Izan ere, urriaren 1ean kirol eskolen denboraldia hasiko da, bai eta 60 urtetik gorakoendako jarduerak eta igeriketa ikastaroak eta klubak ere (lehiaketa egutegia dutenak izan ezik).

Izena emateko epea amaiturik, oraindik ere bada lekurik Kirol Eskoletan. Kirol Zerbitzuan emanen dizute informazioa (948 13 22 88, kirolak@ansoain.es, Idaki). Umetxo, haur eta helduendako igeriketa ikastaroetan, oraindik ere badago izena emateko aukera www.idaki.org webean edo Kirol Zerbitzuan. 60+ jardueretan, gimnasia, aquagym eta indarra lantzeko tailerra bete dira, baina bada lekurik 60 urtetik gorako igeriketan (izen-ematea Idakiko harrera-lekuan edo www.idaki.org).

El deporte en la infancia y juventud favorece el crecimiento físico y mental, además de fomentar la socialización, la disciplina y la confianza, y crea las bases para una vida activa y saludable en el futuro. Por ello, participar en una de las actividades deportivas que ofertan el Servicio de Deportes y los clubes deportivos es una muy buena opción. El 1 de octubre comienza la temporada de las escuelas deportivas, actividades para mayores de 60 y cursos de natación y clubes (salvo aquellos que tengan calendario de competición).

En las escuelas deportivas, concluido el plazo de inscripciones, todavía quedan algunas plazas. Puedes informarte en el Servicio de Deportes (948 13 22 88, kirolak@ansoain.es, Idaki). En el caso de los cursos de natación infantil, adulta o para bebés, es posible apuntarse todavía a través de www.idaki.org o del Servicio de Deportes. En las actividades 60+, se han completado los cursos de gimnasia, aquagym y taller de fuerza, pero quedan plazas en natación + 60 años (inscripciones en recepción de Idaki o en www.idaki.org).



## Kirola eta gehiago Igerilekuaren Jaian

Idakiko udako igerilekuek beren ohiko jaia ospatu zuten abuztuaren 1ean. Jarduera asko antolatu ziren; besteak beste, puzgarriak, 3x3 futbol txapelketa, saskibaloiko hiruko lehiaketa, mus txapelketa eta, bukatzeko, kontzertua.

## Deporte y más en la Fiesta de la Piscina

Las piscinas de verano de Idaki celebraron el 1 de agosto su fiesta. Hubo hinchables, un torneo 3x3 de fútbol, un concurso de triples de baloncesto, un campeonato de mus y un concierto final.

## C.F. Gazte Berriak klubaren arrakasta

Klubeko lehen taldea lehen aldiz igo da 1. maila autonomikora. Jokalari guztiak Antsoaingo bizilagunak dira eta, denboraldi honetan taldea indartzeko sartu diren jokalariak ere antsoaindarrak dira. Helburua da 3. RFEF mailara igotzea. Bestalde, klubak hainbat liga irabazi zituen, hala nola 1. mailako jubeniletan, 1.mailako kadeteetan, 1. mailako Nafarroako infantiletan, eta Futbol 8 benjaminetan. Lan bikain horren ondorioz, Osasunak zazpi jokalari fitxatu ditu: Gabriel Sánchez, Dimitar Angelov, Aner Sa, Izai Larraza, Izan Bartolome, Ekhiñe Zunzarren eta Nahia Tiscar. Denboraldi honetan, talde berria sortu da 1. erregional mailan.

## Exitosa temporada del C.F. Gazte Berriak

El Club consiguió por primera vez el ascenso del primer equipo a 1ª Autonómica. La plantilla, formada en su totalidad por jugadores de Ansoáin, se ha reforzado esta temporada con nuevos vecinos. El objetivo, ascender a 3ª RFEF. Por otro lado, el club ganó las ligas 1ª Juvenil, 1ª Cadete, 1ª Infantil Navarra y Fútbol 8 Benjamín. Fruto de este gran trabajo, siete jugadores/as han fichado por Osasuna: Gabriel Sánchez, Dimitar Angelov, Aner Sa, Izai Larraza, Izan Bartolome, Ekhiñe Zunzarren y Nahia Tiscar. Esta nueva temporada se ha creado un nuevo equipo en la categoría 1ª Regional.

## Etenik ez udan Herri Kiroletarako

Antsoain Herri Kirol Taldea, izan ere, lehian aritu da Nafarroako arpana txapelketan sanferminetan (absolutua eta kadetea) eta, ingudean edo konbinatuan, infantiletan eta kadeteetan; abuztuan, bestalde, Herriz Herri txapelketak jokatu ditu, bai eta lokotx bilketa ere; eta irailean, arpana txapelketa misto absolutuko kanporaketa (finala Antsoainen egin zen). Urriaren 18an, bestalde, 21 urtez beherakoentzako arpana txapelketa mixtoa jokatuko da.

## Verano activo para el herri kirolak

Antsoain Herri Kirol Taldea compitió en los campeonatos navarros de San Fermín de tronza absoluto y cadete y de yunque o combinada en las categorías infantil y cadete; en agosto en los campeonatos Herriz Herri y de recogida de mazorcas; y en septiembre en la eliminatoria de tronza mixto absoluto, cuya final se celebró en Ansoáin. El 18 de octubre Ansoáin acogerá el campeonato sub 21 de tronza mixto.

# Zer kirol dut gustukoen?

# ¿Qué deporte me gusta más?

JARDUEREN EGUTEGIA HEMEN ESKURA

CALENDARIO DE LAS ACTIVIDADES DISPONIBLE EN

Harrera ona izan du Kirol Zerbitzuaren proposamenak kirol espezializazio goiztiarra saihesteko. Izan ere, kirol anitzeko bi talde sortu dira 6 eta 7 urteko haurrekin, eta psikomotrizitateko beste bat, 4 eta 5 urteko umeekin.
Kirol anitza jarduerak kirol sorta zabala lantzeko aukera emateaz gain, balioetan oinarritutako hezkuntza ere sustatzen du. Ikasturtean zehar, kirol andana landuko da, hala nola eskalada, gimnasia erritmikoa, judoa, patinajea, pilota, triatloia, futbola, saskibaloia, herri kirolak eta halterofilia. Jarduera urriaren 1ean hasi eta maiatzaren 31n bukatuko da. 57 saio emanen dira euskaraz 2019ko talde bati eta 2018ko beste bati.
Psikomotrizitateak gorputzaren mugimendua erabiltzea du helburu garapen integrala sustatzeko: fisikoa, emozionala, kognitiboa eta soziala. Kirol anitzean hasi aurreko jarduera da eta urriaren 1etik maiatzaren 31ra garatuko da euskarazko 58 saioren bitartez.

La propuesta del Servicio de Deportes para evitar la especialización deportiva temprana ha tenido una buena acogida. Se han formado dos grupos de Multideporte con niños y niñas de 6 y 7 años, y otro de Psicomotricidad con menores de 4 y 5 años.
La actividad de Multideporte promueve la práctica variada de deportes y fomenta la educación en valores. A lo largo del año se practicarán escalada, gimnasia rítmica, judo, patinaje, pelota, triatlón, fútbol, baloncesto, herri kirolak y halterofilia. La actividad comienza el 1 de octubre y finaliza el 31 de mayo. Se impartirán 57 sesiones en euskera a un grupo de 2019 y a otro de 2018.
La Psicomotricidad tiene como objetivo utilizar el movimiento corporal como medio para favorecer el desarrollo integral: físico, emocional, cognitivo y social. Se trata de una actividad previa al Multideporte y se desarrollará del 1 de octubre al 31 de mayo en 58 sesiones en euskera.

## CGR Ansoáin kluba gimnasiaren jai handian aritu da Navarra Arenan

## CGR Ansoáin participa en la gran fiesta de la gimnasia en el Navarra Arena

Antsoaingo Gimnasia Erritmikoko Klubak Rítmica Fest Txapelketa Nazionalaren lehen edizioan parte hartu zuen joan den uztailean, Navarra Arenan. Fest eta Oinarri mailetan lehiatu zen. Kadeteetan, CGR Ansoáin V 9. postuan gelditu zen finalean, eta CGR Ansoáinek 8. postua lortu zuen; jubeniletan, berriz, 5.postua. Oinarri mailan, Antsoaingo gimnastak bikain aritu ziren 5 pilotako ariketetan, emaitza on-onak lortuta: 2. postua CGR Ansoáin M-rentzat, eta 5. postua, P taldearentzat kimuetan, eta 2. postua, kadeteetan.




El Club de Gimnasia Rítmica Ansoáin participó el pasado mes de julio en la primera edición del Campeonato Nacional Rítmica Fest, celebrado en el Navarra Arena. Compitió en los niveles Fest y Base. En la categoría cadete CGR Ansoáin V quedó 9º en la final y CGR Ansoáin logró el 8º puesto, mientras que en categoría juvenil finalizó en el 5º puesto. En el nivel Base las gimnastas de Ansoáin brillaron con sus ejercicios de 5 pelotas, con unos resultados muy positivos: 2º puesto para CGR Ansoáin M y 5º para el P en categoría alevín, y 2º puesto en categoría cadete.

## Hobekuntzak udal rokodromoan / Mejoras en el rocódromo municipal

Idaki udal rokodromoak eraberriturik heldu dio 2025-26 denboraldiari, 45 eskalada-bide berritu baitira, eta eskalada-helduleku berriak ere badaude. Horrez gain, erabilera libreko ordutegia zabaldu da eskalada ikastaro zuzenduetan ari ez direnentzat. Gogoratu behar da, rokodromoa nahieran erabiliko bada, mendi eta eskalada federatu txartela eduki beharra dagoela.

INFO+

El rocódromo municipal de Idaki comienza la temporada 2025-26 con 45 vías de escalada renovadas y juegos nuevos de presas de escalada. Además, se amplía el horario de uso libre para aquellas personas que no están inscritas en algún curso dirigido de escalada. Hay que recordar que para utilizar el rocódromo de manera libre es imprescindible estar en posesión de la tarjeta de federado/a de montaña y escalada.

## Aerobic eta Kettlebell, kirol abonuan / Aeróbic y Kettlebell, en el abono deporte

Urriaren 1etik aurrera, bestelako jarduerak eskainiko dira kirol abonuan, eta euskarak toki handiagoa izanen du, Idakira monitore berriak iritsi direlako. Jarduera berrien artean, aerobic eta kettlebell nabarmendu behar dira, indarra hainbat material erabiliz lantzeko.

INFO+

A partir del 1 de octubre se ofrecerán nuevas actividades y una mayor presencia de euskera en el abono deporte, gracias a las recientes incorporaciones al equipo de monitoras y monitores de Idaki. Entre las novedades, cabe destacar el aeróbic o el kettlebell, donde se trabajará la fuerza con distintos materiales.

# Literatur eta pintura lehiaketa, erabakiak

# Fallados los certámenes literario y de pintura



Joan den irailaren 15ean Literatur Lehiaketako eta Jaietako Kartelen Lehiaketako sariak banatu ziren.

**Haur Literatur Lehiaketan** bi kategoria dira adinaren arabera, 211 haurrek parte hartu dute eta ipuinik eta bertso paperik onenendako sariak banatu dira. **Gazte Literatur Lehiaketan**, berriz, hiru maila dira adinaren arabera, 23 parte-hartzaile izan dira eta olerkirik eta ipuinik onenak saritu dituzte. Eta **Narrazio Laburren Lapurbide Lehiaketan**, 100 lan aurkeztu ziren eta, "Tascar el freno" izan da irabazlea gaztelaniaz, Burgosko Jorge Saiz Mingok idatzia. José Agustín Blanco Redondok (Valdepeñas), berriz, akzesita eskuratu zuen. Euskaraz, "Etorkinei begira, gure etorkizunari mina" idazlana izan da irabazlea, Marijoxe Azurtza Sorrondegi donostiarrak idatzia. Sara Aranburu Lasa ordiziarrak, berriz, akzesita eskuratu du. Bestalde, Aire Zabaleko Pintura Lehiaketaren edizio berrian Alfonso Izco Terek jaso du lehen saria. Bigarren saria Félix Flamariqueri egokitu zaio eta herriko saria Jan Jerzy Skinowski Deskarendako izan da. Aurkeztutako hamar lanak Idakiko instalazioetan egon dira ikusgai.

**Jaietako kartela**

Cuando el cohete suena, todo empieza / Suziriak jotzen duenean, dena hasten da" kartelak -Itxaso Razquin Ciáurriz Antsoaingo bizilagunak egindakoak- iragarri ditu aurtengo jaiak, herri bozketan botoen % 34 lortu baitzituen. Haurren lehiaketan, bestalde, Amaiur Argandoña Sepúlveda izan da irabazlea, "Zeinen ederra izango den" lanarekin.

El pasado 15 de septiembre se celebró la entrega de premios del Certamen Literario y del Concurso de Carteles de Fiestas. En el **Certamen Literario Infantil**, con dos categorías según la edad, participaron 211 niñas y niños y hubo galardones para los mejores cuentos y bertso paperak. En el **Certamen Juvenil**, con tres niveles para las diferentes edades, hubo 23 participantes y se reconocieron las mejores poesías y cuentos. Y en el **Certamen de Relato Breve Lapurbide,** en el que se presentaron 100 trabajos, resultó ganadora en castellano "Tascar el freno" de Jorge Saiz Mingo, de Burgos, mientras que José Agustín Blanco Redondo, de Valdepeñas, obtuvo el accésit. En euskera resultó ganadora "Etorkinei begira, gure etorkizunari mina" de Marijoxe Azurtza Sorrondegi, de Donostia, mientras que Sara Aranburu Lasa, de Ordizia, recibió el accésit.

También se celebró una nueva edición del Certamen de Pintura al aire libre, en el que Alfonso Izco Tere recibió el primer premio, el segundo premio correspondió a Félix Flamarique y el premio local fue para Jan Jerzy Skinowski Deska. Los diez trabajos presentados han estado expuestos en las instalaciones de Idaki.

**Cartel de fiestas**

Por último, cabe destacar que el cartel "Cuando el cohete suena, todo empieza / Suziriak jotzen duenean, denta hasten da", de la vecina de Ansoáin Itxaso Razquin Ciáurriz, anunció las fiestas tras obtener el 34% de los apoyos de la votación popular. En la modalidad infantil el premio recayó en Amaiur Argandoña Sepúlveda con la obra titulada "Zeinen ederra izango den".

---

## Jaien gaineko balorazio on-ona

■ Aurtengo jaiak oso arrakastatsuak izan dira. Jendeak gogotik parte hartu du eta ez da sexu-erasoek eragindako salaketarik izan. Besta giro ona ez da izan kasualitatearen fruitua. Izan ere, egitaraua propio pentsatu da jende guztiarentzat eta, horri esker, herritarrek festa inklusiboak gozatu dituzte. Gazteak zoriondu nahi ditugu bereziki, gogoz lan egin eta arduraz aritu direlako, gozatuta eta, haiei esker ere, festak topagune positiboa izan direlako. Gure esker ona ere agertu nahi diegu udal langileei, bai mantentze-lanetan ari direnei, bai udaltzaingoari, sare komunitarioko beste eragile bat bezala jokatu baitu. Era berean, herriko taldeei, haien presentzia ezinbestekoa izan baita eta, bereziki, irudien bidez jaien amaiera hunkigarria maitasunez prestatu duten pertsonei, Antsoaingo balioak nabarmenduta eta geure burua komunitate gisa indartuta. Azkenik, herritar guztiak hartu nahi ditugu aintzat, festetan buru-belarri, poztasunez eta errespetuz parte hartzeagatik.

Zorionak Antsoain, elkarrekin hobeak baikara!!!

## Valoración muy positiva de las fiestas

■ Las fiestas de este año han sido un gran éxito. Hemos vivido unos días de alta participación y sin denuncias por agresiones sexistas. Este buen ambiente no es fruto de la casualidad. La programación ha sido consciente y pensada para todas, lo que ha permitido que la ciudadanía haya disfrutado de unas fiestas inclusivas. Queremos felicitar de manera especial a la juventud por su implicación y responsabilidad, disfrutando y contribuyendo a que las fiestas hayan sido un espacio de encuentro positivo.

Nuestro agradecimiento también al personal municipal, desde Mantenimiento, que ha trabajado para que todo estuviese en su sitio, hasta la Policía Municipal, que ha actuado como un agente más del tejido comunitario. Igualmente a los diferentes colectivos cuya presencia ha sido imprescindible, y de forma especial a las personas que prepararon con cariño el emotivo cierre de fiestas con la proyección de imágenes, resaltando los valores de Ansoáin y reforzándonos como comunidad.

Por último, un reconocimiento a toda la ciudadanía por participar de manera activa, con alegría y respeto.

¡¡¡Felicidades Ansoáin, juntas somos mejores!!!

# Konpartsa Txiki berriaren jendaurreko aurkezpena

# Presentación pública de la nueva Comparsa Txiki

Irailaren 13an, herriko Konpartsa Txiki berria aurkeztu zen Lapurbide plazan, besta giro ederrean, Txantreako eta Berriozarko konpartsek lagundurik. Erraldoi berriak 2024ko aurrekontu parte-hartzaileen emaitza dira (proposamenik bozkatuenetan bigarrena).
Entseguak astearte eta ostiraletan egiten dira, 18.30etik 19:30era, Harrobin. 9 urte baino gehiago baduzu, etorri guregana!



El 13 de septiembre se presentó en la plaza Lapurbide la nueva Comparsa Txiki en una animada fiesta compartida con las comparsas de la Txantrea y Berriozar. Estas figuras son fruto de los presupuestos participativos de 2024 (segunda propuesta más votada).
Los ensayos se realizan martes y viernes de 18:30 a 19:30 horas en Harrobi. Si tienes más de 9 años, ¡anímate!

EMAN IZENA! ¡INSCRÍBITE!

---

## Proposamen berritzaileak udazkeneko kultur programazioan / Propuestas novedosas en la programación cultural de otoño

■ Antzerki programazioa indarrean abiatuko da udazken honetan. Urrian, izan ere, bi lan eskainiko dira Nafarroako Antzokien Sareko Sendaberri Zirkuituaren eskutik. Horrela, urriaren 5ean, Anita Maravillaren eta Portal 21ren "Andereño" lana proposatzen da familientzat. Urriaren 17an, berriz, "Inmatriculaciones. Oh, my God! ", Amico konpainiak ondua, helduentzat. Lan horrekin batera, "Immatrikulazioak. Eskandalu monumentala" erakusketa jarriko da ikusgai Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak apailatua, Javier Etayo Larrainzar 'Tasio'k egindako ilustrazioekin.
Ados Antzerki Taldeak, bestalde, bere proposamen berria ekarriko du, "52 hercios" izenburukoa, nahi ez den bakardadearen gaia jorratzen duena eta Antsoainen hein batean garatutako sormen prozesu partekatu baten emaitza dena.
Haurrentzako programazioari dagokionez, Producciones Maestras konpainia "Amares" obra prestatzen ari da, bi asteko egonaldia eginen baitu Antsoainen. Ezkaba eta Doña Mayor ikastetxeetako ikasleak lankidetzan ari dira antzezlan horretan.

■ La programación teatral arranca con fuerza este otoño. En octubre se ofrecerán dos obras de la mano del Circuito Sendaberri de la Red de Teatros de Navarra. Así, el 5 de octubre se propone la obra familiar "Andereño", de Anita Maravilla y Portal 21, y el 17 de octubre "Inmatriculaciones. Oh, my God!", de la compañía Amico para público adulto. Esta obra irá acompañada de la exposición "Inmatriculaciones. Escándalo documental", realizada por la Plataforma de Defensa del Patrimonio Navarro con ilustraciones de Javier Etayo Larrainzar 'Tasio'.
Por otro lado, el grupo de Teatro Ados traerá su nueva propuesta, titulada "52 hercios", que aborda el tema de la soledad no deseada y es fruto de un proceso creativo compartido desarrollado en parte en Ansoáin.
Respecto a la programación infantil, la compañía Producciones Maestras está preparando su obra "Amares" con una residencia de dos semanas en Ansoáin en la que está colaborando el alumnado de los colegios Ezkaba y Doña Mayor.

---

## Irakurketa taldeak berriz ere abian

■ Liburutegi Publikoko irakurketa taldeek eta Lapurbide Zentroko irakurketa taldeak jarduerari berrekin diote berriro, uda joan den honetan. Liburutegian, gaztelaniazko taldea hileko azken ostegunean biltzen da, 20:00etan, eta beterik dago, baina itxaron zerrenda bat dago, bajak gertatzen badira ere; euskarazkoa, berriz, hileko azken astearteane egiten da, 18:15ean, eta badago tokirik. Lapurbiden, iraileko izen-ematearen ondorioz, inskripzioa dagoeneko itxita dago.

## En marcha de nuevo los clubes de lectura

■ Los clubes de lectura de la Biblioteca Pública y el Club de Lectura del Centro Lapurbide retoman la actividad tras el verano. En la Biblioteca, el grupo en castellano se reúne el último jueves del mes a las 20:00 horas y está completo, pero existe lista de espera por si se producen bajas; el de euskera (último martes del mes a las 18:15 horas) dispone de plazas libres. En Lapurbide, tras la repesca de septiembre, la inscripción ya está cerrada.

# KULTUR JARDUERAK
# ACTIVIDADES CULTURALES

## 2025
## URRIA OCTUBRE

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

RED DE TEATROS DE NAVARRA
NAFARROAKO ANTZOKI SAREA



**1**
**asteazkena**
**miércoles**

Liburutegia
Biblioteca

18:00

Librea, aretoa bete arte
Libre, hasta completar aforo

**EUSKARAZ / EN EUSKERA**




### ‘TITIRITARI’ LIBURU AURKEZPENA
### PRESENTACIÓN DEL LIBRO ‘TITIRITARI’

Poema liburu ilustratua, haur eta helduentzat; irakurtzeko, abesteko eta jolasteko. Txotxongiloak, poesia eta ilustrazioa batzen dituen liburua, ‘Andereño’ obran oinarrituta.

Libro de poemas ilustrado, para niños/as y para adultos/as; para leer, cantar y jugar. Un libro que aúna títeres, poesía e ilustración de forma bella y divertida basado en la obra ‘Andereño’.

Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

**5**
**igandea**
**domingo**

**ANTZERKIA**
**TEATRO**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

18:00 (55 min.)

6 urtetik aurrera
A partir de 6 años

PREZIOA / PRECIO
**€ 4,00**

**EUSKARAZ / EN EUSKERA**



### ANDEREÑO
*Anita Maravillas & Portal 71*

Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

Andereñoa ausarta, trebea eta atsegina da. Haurren gaitasunetan sinesten du, guztien gaitasunetan. Andereñoak eta haren ikasleek eskola eder bat eraiki dute elkarrekin, basoan, abere guztientzako lekua duen eskola bat. Gure andereñoak gehien maite duen hitza askatasuna da, eta, beraz, bere ikasleak askatasunez haztea nahi du. Zoritxarrez, helduek gerra bat hasiko dute, eta horrek amestutako eskola, maitasunetik eta elkar zaintzetik eraikitako eskola, atzean uztera behartuko ditu gure protagonistak.

La maestra y su pequeña clase han construido juntos una hermosa escuela, una escuela en el bosque con cabida para todos los animales. La palabra más querida por nuestra maestra es la libertad, por lo que quiere que su clase crezca libremente. Desgraciadamente, los mayores comienzan una guerra que obligará a nuestros protagonistas a dejar atrás su soñada escuela, una escuela construida desde el amor y el cuidado mutuo.

**17**
**ostirala**
**viernes**

**ANTZERKIA**
**TEATRO**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

19:30 (65 min.)

Gazte eta helduentzat
Público juvenil y adulto

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**

Sendaberri – Nuevos paisajes escénicos / Paisaia eszeniko berriak



## INMATRICULACIONES. OH MY GOOD!
*Amico Teatro*

PREZIOA / PRECIO
**€ 7,00**

Sinesmen erlijiosoarekiko errespetuan oinarrituz eta umorez Eliza katolikoak bere izenean erregistratu zituen ondasunen salaketa egiten duen antzezlana da. Bi aingeru inozente dira eszena ezberdinak aurkezten dituzten zeremonia-maisuak:
Eliz mutilak, apezpikuak, apaizgaiak eta jabetza-erregistroko funtzionarioak. Zortea diozesiaren esku uzten duen loteria berezia, sari nagusitzat Kordobako Meskita duena. Herriko apaizak eskuak garbitu ditu eta, zein erraza den eraikinak erregistratzea esaten duen abesti zoriontsua. Bitartean, gure aingeruek sinesgaitz begiratzen diote errealitate horri goi-goitik. Oh, my God!

Obra de teatro que denuncia con humor, y desde el respeto a la creencia religiosa, los bienes que la Iglesia católica registró a su nombre. Dos ángeles ingenuos son los maestros de ceremonias que presentan las diferentes escenas. Monaguillos, obispos, seminaristas y funcionarios del registro de la propiedad. Una singular lotería en la que la suerte va por diócesis y el gordo es la Mezquita de Córdoba. El cura de pueblo que se lava las manos con el asunto, una canción feliz sobre lo fácil que es registrar bienes inmuebles y nuestros ángeles que observan incrédulos esta realidad desde las alturas. Oh, my God!

**13-19**

**ERAKUSKETA**
**EXPOSICIÓN**

Idakiko hallean
Hall de Idaki

## INMATRICULACIONES
*Javier Etayo Larrainzar 'Tasio'*

**Doako sarrera / Entrada libre**

Sendaberri – Nuevos paisajes escénicos / Paisaia eszeniko berriak

**23**
**osteguna**
**jueves**

**DOKUMENTALA**
**DOCUMENTAL**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

19:00 (109 min.)

Gazte eta helduentzat
Público juvenil y adulto

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**



## HIJA DEL VOLCÁN
*Jenifer de la Rosa Martín*

**Doako sarrera / Entrada libre**

LAGUNTZAILEA / COLABORA:
**Nafarroako SOS Arrazakeria**
**SOS Racismo Navarra**

Hogeita hamar urte zituela, Jeniferrek bere adopzioaren arrazoiak ikertzea erabaki zuen, 1985ean Nevado del Ruiz sumendiak 25.000 pertsona baino gehiago hil zituen hondamendiaren ondoren. Informazio gutxi duenez, aita tragedian hil zitzaiola eta amaren izena, Kolonbiara itzultzen da erantzun bila, eta prozesua grabatzeko erabakia hartuta. Bertan, bere iragana argitzen laguntzen dioten hainbat pertsona ezagutzen ditu. Bere bidaia amaitzen da, kasualitatez, bere errealitatea betiko aldatzen duen norbait ezagutzen duenean.

A sus treinta, Jenifer decide investigar sobre los motivos de su adopción, acontecida tras la catástrofe en la que el volcán Nevado del Ruiz acabó con la vida de más de 25.000 personas en 1985. Con la poca información que tiene, que se reduce a que posiblemente su padre falleciera en la tragedia y el nombre de su madre, regresa a Colombia en busca de respuestas y con la decisión de grabar el proceso. Allí conoce a diferentes personas que le ayudan a descifrar su pasado. Su viaje culmina cuando, por casualidad, conoce a alguien que cambia su realidad para siempre.

## 24 ostirala viernes

**ANTZERKIA TEATRO**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

20:00 (60 min.)

Gazte eta helduentzat
Público juvenil y adulto

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**




### LA VIDA PERDURABLE
*Primera Fila y Centrado*

PREZIOA / PRECIO
**€ 7,00**

LAGUNTZAILEA / COLABORA:
**El Charco**

‘La vida perdurable’ Alfredo Sanzolek idatzitako lehen lau lanetan zehar egiten den bidaia da. Istorioz osatutako istorioa da, zatika eraikia, baina guztiek ere ezaugarri berdina dute: umorea. Eta, hain zuzen, umorea da hausnarketa edo txantxa hutsa hasten den ihesbidea eta inflexio-puntua.

‘La vida perdurable’ es un viaje por las cuatro primeras obras escritas por Alfredo Sanzol. Una historia de historias, construida con fragmentos pero con un denominador común, el humor, siendo este la válvula de escape y el punto de inflexión donde comienza la reflexión o la pura chufla.

## 25 larunbata sábado

**ANTZERKIA TEATRO**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

20:00 (70 min.)

Gazte eta helduentzat
Público juvenil y adulto

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**




### ONDAS BÁRBARAS
*La Segunda Compañía*

PREZIOA / PRECIO
**€ 7,00**

‘Ondas Bárbaras’, Chis Frikis-en gidaritzapean, gustu txarrez beteriko irratsaioa, urteurrenean dago. Duela urtebete hasi zuten amets hautsiei omenaldia egiteko bidaia, eta horregatik erabaki dute etxea leihotik behera bota eta bertatik zuzenean emititzea. Beren buruaz barre egin eta entzuleei gauza bera egiteko aukera eman nahi dietela diote.

‘Ondas Bárbaras’, programa de radio lleno de inutilidades gustosas comandado por las Chis Frikis, está de aniversario. Hace un año que iniciaron este viaje en el que pretenden hacer un homenaje a los sueños rotos, y por eso han decidido tirar la casa por la ventana y emitir en directo desde aquí. Dicen que quieren reírse de sí mismas y dar la oportunidad a los oyentes de hacer lo mismo.

## 26 igandea domingo

**ANTZERKIA TEATRO**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

18:00 (50 min.)

4 urtetik aurrera
A partir de 4 años

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**



### SÉ TORTUGA
*Compañía Xip Xap*

PREZIOA / PRECIO
**€ 4,00**

Oilarra oso gaizki pasatzen ari da. Denbora asko darama lanik gabe eta ez du sosik. Egun batean, kantu irakasle izatea eskaintzen diote, eta poztu egiten da. Baina lana ez zen espero zuena: bere ikasleak Wonderful direlakoak dira, hots, kanturako oso ahots onak ez dituzten bost dortoka. Oilarrari laguntza eskatu nahi diote, lehiaketa bat irabazteko.

El gallo lo está pasando fatal. Lleva mucho tiempo sin trabajo y no tiene un céntimo. Un día le ofrecen ser profesor de canto y se entusiasma, pero el trabajo no es lo que esperaba: sus alumnas son las Wonderful, cinco tortugas con unas voces no demasiado dotadas para el canto que pretenden que el gallo les ayude a ganar un concurso.

## 29
asteazkena
miércoles

**IPUIN-KONTALARIA**
**CUENTA CUENTOS**

Liburutegia
Biblioteca

17:30



## CUENTOS DESLUMBRANTES
*Sergio De Andrés*

3 eta 9 urte bitartekoentzat
De 3 a 9 años

**Doako sarrera / Entrada libre**

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**

## 31
ostirala
viernes

**ANTZERKIA**
**TEATRO**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

19:30 (90 min.)

Gazte eta helduentzat
Público juvenil y adulto

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**



## 52 HERCIOS
*Ados Teatroa*

PREZIOA / PRECIO
**€ 7,00**

Benetako bakardade testigantzetatik abiatuta sortutako ikuskizuna. Izenburuak azken 35 urteetan Ozeano Bareko hainbat tokitan grabatutako soinu bitxi baten frekuentziari egiten dio erreferentzia, balea urdin baten kantuaren antzekoa. Baina balea urdinak 10 eta 39 hertzio arteko frekuentzian komunikatzen dira, eta "balea bakarti" honen ahotsa, 52 hertzioan bibratzen duena, espeziearen entzumen-mugatik kanpo geratzen da.
Dirudienez, "52 hertzioko balea" jaiotzez gorra izan daiteke, eta horregatik ez zuen inoiz ikasi bere kantuak frekuentzia egokian emititzen. Ez da beste balearik bere deiari erantzuteko gai.

Espectáculo creado a partir de testimonios reales de soledad. El título hace referencia a la frecuencia de un extraño sonido registrado en los últimos 35 años en distintos lugares del Pacífico, similar al canto de una ballena azul. Pero las ballenas azules se comunican en frecuencias que van de los 10 a los 39 hercios, por lo que la voz de esta extraña "ballena solitaria", vibrando a 52 hercios, queda fuera del umbral auditivo de la especie. Se cree que la "Ballena de los 52 hercios" puede ser sorda de nacimiento, y que por eso nunca aprendió a emitir su canto en la frecuencia correcta. Ninguna otra ballena ha podido jamás escuchar su llamada.

## 16
osteguna
jueves

**HITZALDIA**
**CHARLA**

Loza Kultur Gunea
Espacio Cultural Loza

17:00-19:00

## ESKUTIK FAMILIA ESKOLA
## ESCUELA DE FAMILIAS ESKUTIK
*Pili Miqueo*

## ESTIMULAZIO SENTSORIALERAKO SARRERA
## INTRODUCCIÓN A LA ESTIMULACIÓN SENSORIAL

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**

Izen ematea / Inscripciones:
Urriaren 1etik 9ra
Del 1 al 9 de octubre

idaki

# GIMNASIOA ABIAN
# PUESTA EN MARCHA

Urriaren 1etik aurrera, erreserbatu zure lehen saioa entrenamendu seguru eta eraginkorra egiteko

A partir del 1 de octubre, reserva tu primera clase para hacer tu entrenamiento seguro y efectivo

**Inoiz ez da hain erraza izan lehen hartu-emana!!**

**¡Nunca una primera toma de contacto ha sido tan fácil!**

**Aktibatu zure estrenaldia GYM-an**

**Activa tu puesta en marcha en el gym**



INFORMAZIOA, ERRESERBAK, BERRIAK, ENTRENATZE-APLIKAZIOA...
INFORMACIÓN, RESERVAS, ACTUALIDAD, APP ENTRENAMIENTO...

**www.idaki.org**

ANTSOAIN
ANSOÁIN
UDALA · AYUNTAMIENTO